

## JOAN MARI TORREALDAIK RIKARDO ARREGIRI

Bere lanak sarituak izaten ziren arren, gero ez zeukaten haiek non argitaraturik 60ko hamarkadako idazle berriek. Non-bait argialetxeak elizgizonen esku zeuden, eta haien zat ez izaki oso gustuko, zerua eta lurra, eta batik bat gizon-emakumeen bizitza eta heriotzaren inguruko hainbeste kontu auzitan jartzen zituzten besteen nobela moderno horiek! Gabriel Arestik Kriseilu argialetxea sortu zuenetik, etorkizun oparoagoa espero zuten idazle gazte hauek, baina zenbait edizioen ondoren, zeuzkan xox apurrak berehala agortu zitzaizkion gizonari. Konponbideren bat bilatu beharra zegoen, eta hartan saiatu ziren gure idazleak. Horrela sortu bide zen Lur argialetxea. Pedro Alberdiren "Satorrak baino lurperago" liburuan Enrike Villar-ek kontatzen duenez, Urrietako taberna batean eman zuten argialetxe sortu berriak bere lehendabiziko urratsa. Han bildu omen ziren Rikardo Arregi, Ibon Sarasola, Ramon Saizarbitoria, Gabriel Aresti, Victor Suinaga eta Enrike Villar bera, besteak beste erabakiz, Gabriel Arestiri erostea Txillardegiren "Elsa Schelen" nobelaren edizio osoa, Seat 850 zahar baten truk. Eta Euskaltzaindiako bileran parte hartzeaz batera kotxe hura entregatzera zihoala aurkitu ei zuen Rikardo Arregik heriotza, 1969ko uztailaren 10 batean...

### **FITXA TEKNIKOA**

---

**Gaia:** Euskaltzaindiko Rikardo Arregiri elkarrizketa

**Titulua:** Alfabetatzea (3)

**Egilea:** Joan Mari Torrealday

**Data:** 1969ko uztailak 27

**Aldizkariaren zenbakia:** 334

**Zein orrialdetan:** 18

**Luzera:** 6.688 karaktere

## ALFABETATZEA (3)

Euskaldunok analfabetoak gera. Hau entzutean asko txunditu egingo dira, edo asarretu (danetik dago-eta). Baina egia hutsa da. Euskaldun gehienek ez dakite euskeraz irakurtzen, gutxiago idazten. Analfabetoak, beraz.

Maiz aipatu dugu idazlearen eta herriaren arteko lokarri hori gorde beharra dagoela, idazlearen lana bera haintzat hartzea nahi bada. Ikastolarekin batera, alfabetatzea etorri da hutsune hori betetzera.

Rikardo Arregirekin mintzatu naiz, Rikardo baida kanpaña honen eragile nagusia. Berak bakarrik dakizki, arazo honekin, eman dituan hitzaldiak, egin dituan ibilaldiak. Eta hartu dituan buruaustak.

### **-Noiz hasi zan kanpaña hau, Rikardo?**

-Proiektua, 66-koaren hilbeltzean, Jarraikoek presentatu zuten. Nik presentatu nuan Euskaltzaindian, bostek izenpetua. Aurreneko komisio hortan asko ziran. Baino inork ez zuan kolperik jotzen. Eta ni, handik gutxira, soldadutzara joan nintzan.

### **-Eta artean?**

-Begoña Arregi nere arrebak, Mari Karmen Garmendiak, eta Arantxa Saizarbitoriak zuzendu zuten.

### **-Jakin al liteke nola hasi ziran?**

-Zenbait zuzenbide hartu zituzten: Baserri-Gaztedikoenak, Euskal folklore eta beste zenbait taldekoenak: eta hoiei asmaoa agertu, berri emanaz. Ondoren, 67-ko udan lehengo kursilloa ospatu genuan Donostian. 50 bat etorri ziran, Berastegi, Andoain, Zumaia, Tolosa, eta Donostia bertatik. Hoiei alfabetatze-karneta eman genien, baina ezer gutxi egin dute beren herrietan.

### **-Eta gerora ere Donostian bilduaz jarraitu al duzue?**

-Ballaraka egitea hobe zala erabaki genuan. Eta horrela, Zestuan (Urola), Bergaran eta Beasainen (Goierrri) egin ditugu besteak.

**-Gaur zertan zaudete, ze etapan?**

-Organizazioa sendotzen. Ez dugu nahi organizazio berri bat izatea, bat gehiago. Uste dugu ballarako antolamenduekin kontatu behar dala. Baina direzio bat ez ba dago, ez dago aurrera egiterik.

**-Nola muntatu duzute zuen "organizazio" hori?**

-Hiru zatitan: antolamendu ofiziala (Irigarayk eta biok), maila teknikoa, herriko maila.

**-Maila teknikoa zer da, Rikardo?**

-Izenak dionez, hartuemanak eta gainontzeko teknika-lanak oro aurrera eramateko ofizina. Prim kalean dugu, jarri berria. Honek diru problema sortzen du. Hemen gertatzen dana da lanean dabilenak pagatu behar duala.

**-Kanpaña hontan hasieran pentsatutako martxan al zoazte?**

-Mantxoago. Konturatu gera ez dala lana hain erreza eta ez dagoala horren presaka joaterik.

**-Ikus zagon herri-maila: Euskalerrria, zuen lanerako, herrialdetan banaturik duzute, ezta? Nun?**

-Batez ere Gipuzkoa eta Bizkaian. Baina gurea euskalki banaketa politikakoa baino gehiago da.

**-Gaur daukazuten problema nausiak zeintzuk dira?**

-Bi eratakoak: lewendabizi, alfabetatzeak sentidua "masaka" eginaz bakarrik hartzen duala. Eta masaka egiteko, propaganda beharra dugu, eta hontarako, diru-beharra. Propaganda zabal bat ez bada egiten, lehendik kutsuturikoak bakarrik etorriko dira. Eta beste denak? Eta bigarren, irakasleak behar ditugu, liberatuak behar ditugu. Zaila da, guk daukagun jendea herriko jendea baida, eta bere eguneroko lana bukatu ondoren egin behar baidute beste edozein eginkizun.

**-Gaurkoz nola konpontzen zerate?**

-Beti da apaizgai izandako edo apaizen bat.

**-Urrengo asmoak?**

-Kursilloak berriro Bergaran, Urolan eta Goierriin egitekotan gaude. Nahi genduke udan bildu responsableak eta organiza-

zio naiko finkatua izanen da, eta datorren kursoko kanpaña nahi genduke eratu.

**-Alfabetatzea irakasle batek eman ohi du herri bakoitzean. Eta irakasle izateko karnet bat ematen duzute. Zer eskatzen zaio alfabetatzaileari, karnet hori lortu nahi duanari?**

-Reglamendu bat ba dago: Kursillo bat pasatu beharra. Zer erakusten zaien? Irakatsi behar dituzten irakur-zatiak entenitzen, eta konferentzi batzuk ere ematen zaizkie. Egia esan, zer erakutsi behar zaien proiektua estudioan dauka batzorde tekniko batek. Aurrerantzean, gramatika, pedagogia, eta munduan alfabetatzea, nahiz giro diferenteetan, nola egin dan jakitea eskatuko zaie. Gero esamina eta kontrola.

**-Karnet hori betiko al da?**

-Bi urterako. Eta zuzendaritzak berritzen ez badu, ez du balio.

**-Zenbat karnet banatu dituzue orainarte?**

-200 bat. Baina benetan lan egin, 40 batek egin dute.

**-Alfabetatzaileari eskatzen zaiona ikusiaz, ikus zagun alfabetatuari zer eskatzen diozuten lehen maila hontan.**

-Kursoa bukatzerako, 24 zati hoiak irakurtzen jakin dezala, euskalki diferenteak ezagutu ditzala, eta ohitu dedila. Eta behin betirako uxa ditzala prejuizio sikologjikoak oro.

**-Alfabetatze-ikastaro hauek nun eman dituzute?**

-Gipuzkoan eta Bizkaian. Herri askotan.

**-Fruiturik onenak nun?**

-Goierrin. Hemen urte guzian jardun ziran. Eta gero Eibarrin. Urolakoak eta Bergara aldekoak erdipurdizka egin dute. Noski, lehenengo pausoak ziran.

**-Egin dan toki guzietan lehenengo maila egin da, ezta?**

-Bai. Bigarrean pentsatzen gaude. Baina oraingoz lehenengoak gerra asko eman digu. Eta askoz ere zailagoa da bigarrena irakaslearen aldetik. Irakasleari zer ira katsi? Eta bigarrenakin hasteko planifikazio kultural oso bat behar dugu. Alfabetatze kanpo beste gauza batzuk eskatzen ditu: testokak..., hemen gaiak erakutsi behar dira zuzenki, ez lehenengotan bezala osagarri legez.

**-Alfabetatze-mota bat bera da guzientzako eta toki guzietarako?**

-Hasieran bai. Baina legegizonengan eta besteengan ere pentsatu beharra dugu.

**-Zenbat herritan egin da?**

-40-50 izango dira.

**-Ze jende-klase bildu da?**

-Ez dakigu. Dakizunez, numero falta da nagusi euskal alo-rean. Horregatik estadistika-sail bat jarri nahi dugu. Tekniko bati eman diogu. Personaren egoera eta euskerarena, estudiantu nahi da.

**-Zenbat pasatu dira ikastaro hoietatik?**

-Bajutik jota 3.000 bat irakurle. Baina ez daukat numeroak jartzetik.

**-Jendeari begira: problemarik nausiena?**

-Asistentzia, iraupena.

**-Zergatik?**

-Lehen aipatutakoa: propagandarik-eza. Eta gero jendeak behar hau subjektiboki senditzen ez dualako. Objektiboki badago behar hori.

**-Euskaltzaindiaren barruan dago taldea bera?**

-Bai. Eta hain zuzen Baionako Euskaltzaindiaren azkeneko bileran hautatu ziran lehendakaria eta idazkaria.

**-Ikastaro hau egitea kobratzen al duzute?**

-Hutsa. Bakoitzari karpeta bat ematen zaiolako. Hortik apenas geratzen zaigun dirurik.

**Joan Mari Torrealdai**